BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

700

2/2012 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko kide bat ordezkatzea onartzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Legearen 5. artikuluaren arabera, lehendakariak du sindikatuek eta enpresarien erakundeek Lan Harremanen Kontseiluan dituzten kideak izendatzeko eskumena, sindikatuek eta enpresarien erakundeek beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 6. artikuluaren arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urterako izango da; horrek ez du esan nahi, ordea, berriro ere aukeratu ezin direnik.

Nahiz eta agintaldia bi urterako izan, Lan Harremanen Kontseiluaren ekainaren 27ko 11/1997 Legearen 6.2 artikuluak sindikatu erakunde eta konfederazioei eta enpresa konfederazioei aukera ematen die izendatutako kide titularrak edo ordezkoak aldatzeko.

Legezko ahalmen horren indarrez, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuak Lehendakariaren abenduaren 29ko 25/2009 Dekretuari jarraikiz izendatutako kide bat ordezkatu du eta beste kide bat izendatzea erabaki du, sindikatuaren izenean kontseiluan aritzeko.

Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– María Paz García Ortega andrea Lan Harremanen Kontseiluko ordezko kide izendatzea, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuak aukeratu baitu, José Luis Rezabal Zurutuza jaunaren ordez aritzeko.

Bigarren artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 25ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.